

IBILBIDEA

DEMENTZIA DUTEN PERTSONAK: KOMUNIKAZIOA ETA ONGIZATEA



ACP GERONTOLOGIA

matia
gogoz bizi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Matia Fundazioaren proiektua, Teresa Martínezekin lankidetzan egin

Egile nagusia:

Teresa Martínez Rodríguez.

Idazte prozesuko laguntzailea:

Pura Díaz-Veiga.

Aurrerabide honetan jasotako adibide eta esperientzia baliotsuak Matia Fundazioko Otezuri Zentroko lantaldeak eman ditu:

Olatz Arizaga, Jaione Sagarna, Pedro Bilbatua eta Sara Revilla, eta Cristina Buiza eta Virginia Olivan.

Praktikarako baliabideak prestatu dituztenak:

Teresa Martínez Rodríguez, Feliciano Villar, Cristina Buiza, Amaia Zulaica, Pura Díaz-Veiga, Naomi Feil, Queenslandeko Unibertsitatea, Mayte Sancho eta Daniel Prieto.

Praktikarako baliabideak maketatu eta eduki grafikoak hautatu dituztenak:

Gorka Alías, Juan Carlos Mejía eta Irati Arruabarrena.

Dokumentuaren berrikusketan partaide izan dira:

Matia Fundazioako Dementzia Lantaldea, Amaia Ansa eta Maria Francesca Cerdó.

AURKIBIDEA

1. AURRERABIDEAK PERTSONARENGAN ARDAZTUTAKO ARRETAN PROIEKTUA	7
Zer da ibilbide bat, eta zer helburu du?	8
Zer ibilbide prestatu dira?	8
Zer informazio aurkituko dugu ibilbide bakoitzean?	9
2. «DEMENTZIA DUTEN PERTSONAK: KOMUNIKAZIOA ETA ONGIZATEA» AURRERABIDEA	11
2.1. Hasierako gogoetak	11
2.2. Dementia duten pertsonen ongizatea lortzeko gai garrantzitsuak eta funtsezko elementuak, haiekiko komunikazioa sustatuz	14
● Narriadura kognitiboa eta dementia duten pertsonak: sinesmenak eta jarrerak	15
● Pertsona, gaixotasunaren aurretik	17
● Haren ikuspegia ulertzea	23
● Ongizatea ardatz duten eguneroko interakzioak	27
● Zaintzaileak eta laguntzaileak balioestea eta babestea	33
3. PRAKTIKAN IPINTZEKO BALIABIDEAK	39
4. ARTIKULU ETA DOKUMENTU INTERESGARRIAK	43

1.

AURRERABIDEAK PERTSONARENGAN ARDAZTUTAKO ARRETAN



Aurrerabideak pertsonarengan ardaztutako arretan (aurrerantzean, PAA) proiektua Matia Fundazioak eta ACP Gerontologiak elkarlanean egindako ekimen bat da, eta Matia Fundazioak arreta eredu horretarantz eginiko ibilbidean oinarri harturik sortua da.

Haren helburu nagusia da, alde batetik, gaur egun eskura dugun jakintza eta Matia Fundazioaren aurrerabidean izandako esperientzia arrakastatsuek integratzen laguntzea, eta, bestetik, praktikan ipintzea talde profesionalek, zerbitzu arduradunek, erabiltzaileek eta familiek beren eguneroko jardunarekin eta hausnarketarekin eskuratutako jakintza. Haien guztien gogoetak eta ikaskuntzak funtsezko elementuak dira eginiko sistematizazio lanean.

Agiri honek, gainera, sekula baino beharrezkoagoa den arreta ikuspegi hori bultzatu nahi du, COVID-19ak eragindako pandemian bizitako esperientzien ondotik.

Zer da Pertsonengan Ardazturako Arretaren alorreko aurrerabide bat eta zer helburu du?

Aurrerabideak pertsonarengan ardazturako arreta ikuspegiaren funtsezko edukiei buruzko kontsiderazio, ekintza eta elementu multzo bat dira. Guztiak ere eskura dugun jakintzaren bidez berretsiak eta aplikatutako esperientziak baliozkotuak dira, eta, horri esker, aukera ematen digute zentroetan eta zerbitzuetan praktikan ipintzeko.

Pertsonarengan ardazturako arretaren alorreko aurrerabideek aurrerapen bideak erraztu nahi dituzte. Haien helburua da zentro eta zerbitzuetako taldeei orientazioa ematea pertsonarengan ardazturako arreta lortzeko bidean; horretarako, estrategia propioak errespetatuko ditu, eta babestuko du aurrerabide guztiek izango dituztela, bai beharrezko globaltasuna, bai arreta eredu horren aurrerabideak izan beharreko orientazio garbia.

Zein ibilbide egin dira?

Proiektu honen lehenbiziko fasean, bost aurrerabide identifikatu eta landu dira, askotariko talde, zentro eta zerbitzuetako profesional eta arduradunekin izaniko partaidetza prozesu baten bidez:



0. Ibilbidea

Antolakuntza kultura eta PAAan aurrera egiten laguntzen duten elementuak



1. Ibilbidea

Tratu egokia



2. Ibilbidea

Pertsonen partaidetza beren buruaren arretan



3. Ibilbidea

Dementzia duten pertsonak: komunikazioa eta ongizatea



4. Ibilbidea

Arriskuak eragin ditzaketen lehentasunak

Zer informazio aurki dezakegu ibilbidea bakoitzean?

Aurrerabide bakoitza zenbait elementuk osatzen dute.



01

Ibilbidearen esparrua:

- a) Hasierako gogoetak biltzen dituen deskribapena, bi hurbilketa kontuan hartuta, etikoa eta zientifikoa.
- b) Aintzakotzat harturik, orobat, praxi profesional egokirako gai garrantzitsuak eta funtsezko elementuak¹.



02

Jarduteko baliabideak:

Aurrerabide bakoitzaren garapena eta aurrerapena erraztuko duten estrategiak eta tresnak biltzen dituzte. Horretarako, askotariko baliabideak bildu eta landu dira, zeinak zentroen eta zerbitzuen eskura baitaude.



03

Artikulu eta dokumentu interesgarriak:

Askotariko baliabideak dira (artikulu zientifikoak, dokumentu teknikoak eta aplikatutako esperientziak), eta jardunbide egokitzat jotzen dira; haiei esker, taldeek aukera dute aurrerabidearen edukiari buruzko jakintza aberasteko.

¹ «Praxi egokia» aukeratu dugu, «jardunbide profesional egokiaren» ordez. Ulertzen dugu praxi profesionalaren kontzeptua haratago doala, praktika egoki batean definitutako elementuak barneratzeko beharrezko prozesu indibidualari egiten baitio erreferentzia. Pertsona ardatz duten zainketen testuinguruan, jardunbide profesional egokiak zera adierazten du, zaintzaren prozesu edo alderdi jakin batean zuzen jardutea definitzen duten alderdi objektibatuak edo baliozkotuak; praxi onak, ostera, profesional bakoitzak alde aurretik eginiko hausnarketa-prozesu baten ondoren harturiko konpromisoari egiten dio erreferentzia.

2.

«DEMENTZIA DUTEN PERTSONAK: KOMUNIKAZIOA ETA ONGIZATEA» IBILBIDEA

2.1. LANARI EKITEKO GOGOETAK

 Zergatik dementzia duten pertsonetako komunikazioa eta haien ongizatea lantzeko ibilbide bat?



Zentroetan arreta jasotzen duten pertsona askok narriadura kognitiboa edo dementzia dute. Pertsona horiek behar bereziak dituzte, baina baita eskubideak eta nortasun propioa ere, zeinak onartu eta zaindu egin behar baititugu haiek zaintzeaz arduratzen garenok.

Komunikazioa erabakigarria da dementzia duten pertsonak ondo zaintzeko. Dementzia duten pertsonekin komunikazio egokia izatea funtsezko estrategia da, dela haien ongizateari laguntzeko, dela pertsona horien ingurunea nahasi bihurtzen denean ager daitezkeen portaera aldaketak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko.


Alabaina, ez da eginkizun samurra dementzia duen pertsonarekin komunikatzea. Beharrezkoa da laguntzaileek eta zaintzaileek jarrera eta trebetasun jakin batzuk garatzea, ikuspegia lantzea. Eta profesionalok laguntza behar dugu horretarako.

COVID-19ak harrarazitako neurriek erakutsi dute dementzia duten pertsonen zailtasun bereziak dituztela egokitu zaizkigun egoera askoren aurrean, eta agerian geratu da komunikazioak garrantzi berezia duela pertsona horiei laguntzeko.



Zein dira demenzia duten pertsonen ongizatea sustatzeko komunikazioaren oinarrizko kontsiderazioak?

● **Pertsonak, demenziaren aurretik**



Dementziak ondorio garrantzitsuak ditu pertsonarengan, eta, horrenbestez, baliteke diagnostiko horrek besteren ikuspegia inbaditzea. Eta eragin dezake, orobat, demenzia duen pertsona bakar eta baliotsu gisa ikus dezagun galaraztea.

Gaixotasuna (kasu honetan, demenzia) pertsonaren zirkunstantzia bat da. Ez daude demenzia duten bi pertsona berdin. Ezin dugu onartu demenziak definitzea pertsonaren muina.

● **Demenzia duten pertsonak askotariko premiak iza ten jarraitzen dute**



Funtzio kognitiboen narriadura izaten da demenziaren ezaugarria. Baina gizakia ez du definitzen osagai kognitiboak bakarrik. Demenziak aurrera egiten duenean, «pertsona» ez da desagertzen eta gizabanako horrek behar psikosozialak izaten jarraitzen du. Demenzia duten pertsonak ez dituzte behar fisikoak edo gorputz premiak bakarrik. Gaixotasun fase aurreratuan daudenean ere, sentitu behar dute aintzakotzat hartzen ditugula; aitortzen, entzuten eta ulertzen ditugula, maitasuna eta babesa eskaintzen diegula.

Bestalde, narriadura kognitiboak ez ditu geldiarazten gizabanakoaren bizitza eta garapen aukera guztiak. Zenbaitetan, demenziaren kontakizun negatiboegien poderioz, gerta dakiguke bizitza eta ongizate aukerak ikusi eta bilatu ezinik geratzea. Zaintza ingurune egoki batek aukera onak eskaini ditzake bizitza atseginaz gozaten jarraitzeko, bai eta pertsonaren nortasuna errespetatzen eta mantentzen laguntzeko ere.

● **Eguneroko ingurunea erabakigarria da demenzia duen pertsona aintzatesteke**



Beste pertsona ezagutzen eta aintzakotzat hartzen denean ematen da tratu ona. Hori dela eta, hurbileko harreman ingurunea erabakigarria da demenzia duen pertsona kontuan hartzeko, eta, beraz, pertsona horrek jasotzen duen traturako. Pertsona hori aintzakotzat hartzea, neurri handi batean, besteren atribuzioen mende egoten da.

● **Dementia duen pertsonaren portaerak haren premiek sorraraziak dira**



Pertsonen portaerak ez dira garuneko kaltearen sintoma zuzenak. Portaera horiek eguneroko zaintza testuinguruetan sortzen dira, espazio jakin batean, elkarrekintzak sortzen diren harreman ingurune batean.

Portaera alterazioak erantzun emozionalak izaten dira, pertsonak ase gabeko premien aurrean ematen dituenak. Gehien-gehienetan, ez dute izaten zentzurik, eta ahalegina egin behar izaten da pertsonaren ikuspegitik ulertu ahal izateko.

● **Dementziak zaintza harreman konplexua eragiten du**



Dementia duten pertsonak askotariko zailtasunak izan ohi dituzte, hala nola kognitiboak, emozionalak, jokabidearekin eta harremanekin lotuak, eta abar. Zaila izaten da zaintzaile eta laguntzaileontzat ere (profesionalak, senideak, lagunak, boluntarioak), eta, horregatik, orientazioa eta laguntza behar izaten ditugu.

Era berean, zaintzaileok ere badugu premiarik eta mugarik. Profesionalok eta senideok ikasi egin behar dugu pertsona ulertzen eta haren beharrak atzematen; ikasi egin behar dugu narriadura onartzen eta hari ematen dizkiogun erantzun emozionalak kudeatzen. Eta, batez ere, jakin egin behar dugu nola erantzun eta nola erreakzionatu ohikoak ez diren egoeretan. Horretarako, beharrezkoak ditugu denbora, prestakuntza eta laguntza.

2.2. DEMENTZIA DUTEN PERTSONEN ONGIZATEA LORTZEKO GAI GARRANTZITSUAK ETA FUNTSEZKO ELEMENTUAK, HAIEKIKO KOMUNIKAZIOA SUSTATUZ

Aurrerabide hori bost gai garrantzitsutan finkatzen da, dementzia duten pertsonekin komunikazio egoki baten bidez ongizatea errazteko. Haietako bakoitzean, aurrerapen ildo horretan aurrera egiteko eta egunerokoan praxi profesional egokia garatzeko **elementu nagusiak** nabarmentzen dira.

	GAI GARRANTZITSUAK	AURRERA EGITEKO ETA PRAXI PROFESIONAL EGOKIA ERRAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK
1.	Narriadura kognitiboa eta dementzia duten pertsonak: sinesmenak eta jarrerak	1.1. Narriadura kognitiboa eta dementzia duten pertsonak: sinesmenen eta jarreraren gaineko hausnarketa
2.	Pertsona, gaixotasunaren aurretik	2.1. Haren biografia ezagutzea, haren berezitasuna eta balioa kontuan hartzea, eta errespetuz tratatzea 2.2. Haren nortasun pertsonala babestea
3.	Haren ikuspegia ulertzea	3.1. Haren lekuan ipintzea eta errealitatea baliozkotzea 3.2. Ase gabeko premiak identifikatzea eta babestea
4.	Ongizatea ardatz duten eguneroko interakzioak	4.1. Interakzio komunikatiboak 4.2. Komunikazioa erraztea 4.3. Ingurune ulergarria eta jardun zentzuduna
5.	Zaintzaileak eta laguntzaileak balioestea eta babestea	5.1. Zaintzailea balioestea 5.2. Familiei laguntzea 5.3. Profesionalei eguneroko zaintzan laguntzea

LEHEN GAI GARRANTZITSUA

1. Narriadura kognitiboa eta dementzia duten pertsonak: sinesmenak eta jarrerak




Beharrezkoa da gogoeta egitea: nola ikusten ditugun dementzia duten pertsonak zentroan edo zerbitzuan. Narriadura kognitiboari eta dementziari buruz ditugun usteak aztertu behar ditugu. Eta aztertu behar dugu, orobat, nola ikusten eta babesten ditugun pertsona horien eskubideak, beharrak eta lehentasunak. Hau da, **gogoeta egin eta ohartu behar dugu dementzia duten pertsonen eskubideen eta nortasun pertsonalaren euskarri eta bermatzaile gisa dugun zereginaz.**

Funtsezko elementuak

1.1. Narriadura kognitiboa eta dementzia duten pertsonak: sinesmenen eta jarreraren gaineko hausnarketa

Garrantzitsua da narriadura kognitiboaren eta demenzia duten pertsonen inguruan ditugun jarrereri eta sinesmenei buruzko hausnarketatik abiatzea, lehenik bakarka, eta gero taldean. Hausnarketa hori bideratzeko, lagungarriak izan daitezke ondoren zerrendatu ditugunen tankerako galderak. Kontzientzia hartzea da gogoeta prozesu horren xedea, funtsezkoa baita hausnartzea, baldin eta gure praktika profesionala hobetu nahi badugu.

Demenzia duten pertsoneri laguntzen diegunean, zer-nolako ikuspegia eta pentsamoldea dugu?	
<ul style="list-style-type: none"> ● Ikusten ditugu gaixotasunak eta beharizanen profilak? 	<ul style="list-style-type: none"> ● Pertsona bakar, berezi eta baliotsuak?
<ul style="list-style-type: none"> ● Ikusten dizkiegu mendekotasuna, arazoak eta gabeziak? 	<ul style="list-style-type: none"> ● Indarguneak eta gaitasunak?
Zer pentsatzen dugu?	
<ul style="list-style-type: none"> ● Demenzia duten pertsonak ez direla gai aldatzeko eta ikasteko? 	<ul style="list-style-type: none"> ● Demenzia duten pertsonak gauza direla aldatzeko eta ikasteko?
<ul style="list-style-type: none"> ● Demenzia aurreratua duten pertsonak behar fisikoak dituzten gorputzak bakarrik direla? 	<ul style="list-style-type: none"> ● Demenzia aurreratua duten pertsonak jarraitzen dutela behar fisiko, sozial eta psikologikoak izaten?
<ul style="list-style-type: none"> ● Demenzia duten pertsonak ezin dietela ekarpenik egin besteei? 	<ul style="list-style-type: none"> ● Demenzia duten pertsonak ere egin dezaketela ekarpenik?



2. Pertsonak, gaixotasunaren aurretik

Besteak aintzakotzat hartzea da tratu onaren eta zaintza egokiaren abiapuntua. Dementia duten pertsonak, adimen gaitasunak pixkanaka galtzen ari direnez, apenas hartu ohi dira kontuan. Batzuetan, zokoratuta geratu ohi dira, ikusezin bihurtuta, batez ere oso ingurune «instituzionaletan» jasotzen dituztenean zainketak, pertsona asko artatzen dituzten tokietan. Zenbaitetan baztertu ere egiten dituzte, enbarazu edo zamatzat hartzen baitira.

Horrek honako hau pentsarazi zigun...




Urteak daramatzagu gure praktika profesionalari buruzko hausnarketa saioak egiten, partaidetza prozesuetan oinarriturik. Saio horietan, argi geratu zen arreta handiagoa eskaini ohi diegula hala eskatzen diguten pertsoneri, gehiago eta hobeto ezagutu ohi ditugula pertsona horiek. Oharkabean igarotzen zaizkigu askotan dementia duten pertsonak (eta, bereziki, gaixotasunaren fase oso aurreratuetan daudenak eta komunikatzeko zailtasun handiak dituztenak). Orduetik hona, alderdi hori hobetzeko lanean ari gara.

Ohikoa izan daiteke dementia duen pertsona bat zaintzen dugunok haren gaixotasunari bakarrik erreparatzea, haren diagnostikoari. Eta gerta liteke, orobat, oharkabean pasatzea pertsona horren berezitasunak, ez erreparatzea pertsona hori besterengandik bereizten duten ezaugarriei. Alderdi patologikoan, gabezietan eta arazoetan bakarrik erreparatuz gero, oharkabean pasatuko zaizkigu haren gaitasunak eta indarguneak.

Funtsezko elementuak

- 2.1. Haren biografia ezagutzea, haren berezitasuna eta balioa balioestea, eta errespetuz tratatzea
- 2.2. Haren nortasun pertsonala babestea


2.1. Haren biografia ezagutzea, haren berezitasuna eta balioa balioestea, eta errespetuz tratatzea



Duintasuna gizakiak bere-berea duen ezaugarri bat da. Hori baieztatzeak esan nahi du pertsona orori aitortzen diogula balioa, edozein izanik ere haren egoera edo ezaugarri pertsonalak. Iraupen luzeko zainketetan duintasuna kontuan hartzeak, ezinbestean, errespetuzko tratua ekarri behar du. Ildo horretan, pertsona oro estimatzea eta aintzatezea da lehenbiziko urratsa.




Pertsonaren biografia ezagutzea lagungarria da, alde batetik, haren portaera asko ulertzeko eta arreta pertsonalizatzeko (ongizate ohiturak errespetatuz), eta, bestetik, haren lorpenei erreparatzeko eta haren berezitasuna balioesteko. **Biografiak egiten du pertsona bakoitza bakar.**



Maiz ikusi izan da **errespeturik gabeko tratua ematen zaiela dementzia duten pertsoneri**. Eskuarki, ezjakintasunagatik egiten da, hausnarketa ezagatik, eta ez asmo txarrez. «Ez da ezertaz jabetzen» uste izatea egoten da maiz zaintzaileon edo laguntzaileon jokabidearen atzean, eta, hala, ukatu egiten dugu dementzia duten pertsonen balioa. Hori batez ere dementzia aurreratua dutenean gertatzen da.



Dementia duen pertsonarengana gerturatzeko moduak eta haiei hitz egiteko erak erakusten du hari buruz dugun ikuspegia, gizakitzat hartzen dugun ala, aitzitik, zaindu beharreko gorputzat hartzen dugun. Gure eguneroko tratua bidez, pertsonak ikusteko moduan ipin ditzakegu, edota ezikusi egin. Indartu ditzakegu haien balioa eta berezitasuna, baina baita gutxietsi ere. Eman diezaiekegu tratua heldua, edota umetu. Laburbilduz, tratatu ditzakegu errespetuz eta estimuz, edota batere begirunerik gabe.



Hori aplika dakioke **dementia duten pertsonen buruz beste batzuekin hitz egiteko moduari ere**. Adibidez, pertsona bertan egonik ere ez balego bezala edo ezer ulertzeko gai ez balitz bezala jokatzek esan nahi du ez diogula begirunerik pertsona horri. «Ponte en mi lugar» (Jarri nire lekuan) proiektuko bideo batzuek oso modu grafikoan erakusten dute alderdi hori.

Ederki ikusten da hori bideo honetan: [Ponte En Mi Lugar - Lo mejor para ella - YouTube](#)



Dementia duten pertsonen buruz erabiltzen dugun hizkuntza gehiegi egon ohi da zentraturik gaixotasunean, gabezia, arazoan, zoritxarrean... **Dementziaren inguruko kontakizun oso negatiboa ikasi dugu, eta halaxe erreproduzitzen dugu** («burua galdu du», «ez da ezertaz jabetzen», «dementziak jota dago», «dementia edukitzea bizirik hilda egotearen pare da» eta abar).




Hori horrela, gure hitzak galga bihurtzen dira, eta zaildu egiten dute aintzatespenean oinarrituriko pertsonen arteko begirada eta harremana.

2.2. Haren nortasun pertsonala babestea



Dementziak astiro-astiro ahalmen kognitiboa galtzea dakar maiz, eta horrek **eragina du norberaren nortasunari eusteko** zereginen. Horregatik, gainerakoak aintzakotzat hartzea funtsezko alderdia da nortasunari eusteko.



Zenbait azterlanek erakutsi dutenez, **dementia larria duten pertsonak zaintzeko inguruneek portaera egokiagoak sortzen dituzte pertsona horiek beren inguruan aintzakotzat hartzen dituztenean**, eta, hainbatetan, buru argitasuna ere adierazi ohi dute (beren burua aditzera emanez, konturen bat esanez, guri begiratzuz, irribarrez, eta abar). Horren adibide ona da, esate baterako, Naomi Feilen bideoa, zeina Gladys Wilsonekin komunikatzen baita baliozkotze emozionaleko tekniken bidez. Edo are izeneko bideoa (barrutik bizirik), zeinean musika pertsonalizatu esanguratsuaren bidez konektatzen baita pertsonarekin.

IRINARI LAGUNTZEN



Irinak gure unitate batean eman zituen bere bizitzako azken urteak. Errusiarra zen sortzez, eta, gure herrialdera emigratu zuenean gaztelaniaz ikasi zuen arren, hizketarako gaitasuna galdu zuen gaixotasunak aurrera egin ahala. Keinuen, begiraden eta ikasi genituen errusierazko hitz batzuen bidez lortzen genuen elkarrekin komunikatzea.

Batzuetan zaila egiten zitzaigun harekin konektatzea. Egun batean, Giorgi senarrak hainbat CD ekarri zizkigun Irinaren abesti gogokoenekin: umetan entzuten eta abesten zituen kantuek ziren, hunkitu egiten zuten. Egunero musika ipintzeko ohitura hartu genuen, haren ondoan jarrita. Egia esan, une hartan askoz lotura handiagoa lortzen zen; elkar ulertzen genuen berriro, nolabait esatearren...

Otezuriko profesionalak kontaktua



Ongizate psikologikoa beharrezkoa da nortasunari eusteko, batez ere adinekoengan eta narriadura kognitiboa edo demen-tziaren bat dutenengan.

Tratu onaren ibilbidean eta **Nola hobetu dementzia duten pertsonen ongizatea gure eguneroko elkarrekintzen bidez** izeneko gidan, zenbait gomendio eta adibide aurkituko dituzu, dementzia duten pertsonen nortasuna ezagutzen eta mantentzen laguntzeko alderdiekin loturik, hala nola pertsonari deitzeko modua, ongizatea sortzen dioten ohiturei eta jardueri eustea, edo norberaren irudia gordetzea, jantzetan eta apainketan dituen lehentasunak errespetatuz.



3. Haren ikuspegia ulertzea

Dementia narriadura kognitiboa eragiten duen kalte zerebral baten ondorioz gertatzen da, eta horrekin batera aldaketa garrantzitsuak agertzen dira pertsonen portaeran. Alabaina, horrek ez du esan nahi haien jokabideak esanahirik gabeak direnik.


Funtsezkoa da logika pertsonaren ikuspegitik ulertzea eta pertsonaren portaeretan dauden beharrak interpretatzea, bai pertsonaren beraren ongizaterako, bai zaintzaileentzat edo harekin bizi direnentzat. Horixe da demenzien eremuan pertsonarengan ardaztutako arreta ikuspegiaren ekarpen nagusietako bat.



Funtsezko elementuak

- 3.1. Haren lekuan ipintzea eta errealitatea baliozkotzea
- 3.2. Ase gabeko premiak identifikatzea eta babestea

3.1. Haren lekuan ipintzea eta errealitatea baliozkotzea



Dementia duen pertsona bat ondo zaintzeak ahalegin berezia eskatzen du, pertsona horren errealitatea ezagutzeko. Horrek esan nahi du pertsona bakoitzarengana hurbildu behar dela, haren ikuspegia ulertzen saiatzeko; haren tokian ipini behar da, eta pertsona horrek une jakin batean zer senti dezakeen ulertzen ahalegindu behar da, nahasitzat edo mehatxagarritzat duen mundu batean edo bere bizitzako beste garai batean koka dezakeen une batean.




Pertsona sentitzen ari dena onartzea da baliozkotzea, haren errealitatea ontzat ematea, baztertu gabe edo zuzentzen ahalegindu gabe. Baliozkotze teknikak baliagarriak dira dementia duten pertsonekin komunikatzeko, baldin eta zailtasunak badituzte egungo egoera erreal bat onartzeko eta ulertzeko. Kontua ez da gezurra esatea, ezta arrazoa ematea edo egitate zalantzarik indartzea ere. Pertsonaren ondoan kokatzea eta emozioetan lagun egitea esan nahi du, entzuten eta onartzen ari garela sentiarazteko, haren errealitatea zalantzan jarri gabe.


Nola hobetu dementia duten pertsonen ongizatea gure eguneroko elkarrekintzen bidez izeneko gidan, adibideak ematen dira teknika horiek zainketen testuinguruan nola aplikatu azaltzeko.



3.2. Ase gabeko premiak identifikatzea eta babestea




Tom Kitwoodek esan zuen dementzia duten pertsonen, baita narriadura fase oso aurreratuetan daudenek ere, beharrak izaten jarraitzen dutela, gainerako pertsonen bezalaxe. Gizakiarentzako bost premia psikosozial unibertsal aipatu zituen: konforta, nortasuna, atxikimendua, okupazioa eta inklusioa. Eta nabarmendu zuen dementzia duten pertsonen ere jarraitzen dutela behar horiek izaten.



Dementzia duten pertsonen, behar fisikoak ez ezik, badituzte premia psikologikoak, erlazionalak eta emozionalak ere. Batzuetan, haien portaera zailek identifikatu gabeko premiekin dute zerikusia, horiek ase nahian ibiltzen baitira..Zenbaitetan, izan daitezke premia fisikoak (mina, hotza, beroa, gosea, deserosotasuna, eta abar), baina izan litezke arrazoi psikologiko edo sozialek eragindakoak ere (bakardadea, asperdura, beldurra, umiliazioa, kezka, frustrazioa eta abar).



Zenbait ekarpen teoriko saiatu dira dementzia duten pertsonen jokabide aldaketak azaltzen (hala nola Tom Kitwoodek dementzia duten pertsonen behar psikosozialei buruz egindakoa edo Cohen-Mansfieldek eta Wernerrek ondoren formulatutako ase gabeko premien eredua). Hala, adierazpen emozionalaren ondorio gisa azaltzen dituzte, edo pertsona horrek dituen premiei erantzuna topatzeko ahalegin gisa, baldin eta sentitzen badute ingurukoek ezikusi egiten dietela edo ez dietela erantzuten. Hurbilketa horiek oso baliotsuak dira dementzia duten pertsonen zailtasunak entzuteko, ulertzeko eta haietara beste ikuspegi batetik hurbiltzeko, eta lagungarriak dira ondoeza prebenitzeko eta haien ongizatea indartzeko.



Juan Miguel oso urduri jartzen zen dutxatzeko garaian. Uko egiten zion gure laguntzari, eta, batzuetan, bere burua defendatzen saiatzen zen, eskuekin kolpeak emanez. Konturatu ginen ez zuela jokabide hori gu guztiokin, baizik eta bi lagun geundenean agertzen zela (eta, batez ere, haietako bat ezagutzen ez bazuen). Konturatu ginen Juan Migueli gertatzen zitzaiona lotsa kontua zela, eta intimitatea nahi zuela dutxatzeko. Harrezkero, ahal dugun guztia egiten dugu pertsona bakar batek lagun diezaion komunean, eta pertsona ezaguna eta konfiantzazkoa izan dadin ahalegintzen gara beti.

Otezuriko profesionalek kontatua



Nola hobetu demenzia duten pertsonen ongizatea gure eguneroko elkarrekintzen bidez izeneko gidan, ekarpen horiek azaltzen dira, eta zenbait gako eta adibideak eskaintzen dira, jokabide zailak erantzun gabeko premien ikuspegitik interpretatzen eta jorratzen laguntzeko.

4. Ongizatean oinarritutako eguneroko elkarrekintzak

Zaintzen ditugun pertsonekin ditugun harremanak giltzarria dira pertsonengan benetan oinarritutako zaintza eredia bermatzeko. Eguneroko martxan sustatzen (edo deskuidatzen) da ongizatea, eta, ondorioz, pertsonen ondoeza prebenitzea (edo areagotzea) lortzen da. **Eguneroko martxak segurtasuna, errekonozimendua, afektua, identitatea eta kontrol sentzazioa eman behar dizkio pertsonari.** Ongizatea eragiten baitu horrek guztiak. Hori bereziki garrantzitsua da dementzia duten pertsonen kasuan; izan ere, zailtasunak edukitzen dituzte beren ingurunea ulertzeko eta, batzuetan, beren bizipenak eta beharrak adierazteko.

Dementzia duten pertsonekin komunikatzeko trebetasun onak izateak berekin dakar behatzen, entzuten eta pertsonarekin konektatzen jakitea, haren ikuspegia ulertzea eta babesa eta onarpena helaraztea. Trebetasun horiek dira, beharbada, dementzia duten pertsonak ondo zaintzeko gako nagusia. Ongizatea sustatzen duten eguneroko elkarrekintzak sustatzea da estrategiarik onena dementziei lotutako zaintza egoera zailak prebenitzeko. Ondoren, funtsezko elementu batzuk ikusiko ditugu, dementzia duten pertsonen ongizatea bultzatuko duten eguneroko elkarrekintzak garatzeko.




Funtsezko elementuak

- 4.1. Interakzio komunikatiboak
- 4.2. Ingurune ulergarria eta jardun zentzuduna
- 4.3. Komunikazioa erraztea

4.1. Interakzio komunikatiboak



Zaintza pertsonen arteko harreman bat da, eta, harreman horretan, **beti sortzen da komunikazioa**. Pertsonak interakzioan jarduten dutenean, ezinezkoa da komunikaziorik ez izatea. Zaintza onak kalitatezko komunikazioa lortu nahi du, positiboa, giza beharrak aintzat hartu eta aseko dituen.




Bi interakzio mota nagusi antzeman ditugu zaintza lanetako komunikazioari dagokionez: **instrumentalak eta sozioafektiboak**. Biak dira garrantzitsuak, baina jakin behar dugu desberdinak direla. Instrumentalak pertsonari zer egin behar duen adieraztera bideratzen dira. Batez ere gorputz zainketekin dute zerikusia, eta zereginen zentratzen dira («Altxatu besoa, xaboa eman behar dizut eta», «Edan baso bat ur»). Komunikazio sozioafektiboek, berriz, komunikazio zabalagoa eta horizontalagoa bilatzen dute; goxotasuna eta konfiantza sortzea dute xede, pertsonarengan arreta jarritz («Ondo zaude?»).



Bi interakzio mota horiek beharrezkoak dira behar bezala zaintzeko, baina saihestekoa da egunerokoan batez ere interakzio instrumentalen bidez bakarrik erlazionatzea. Izan ere, interakzio sozioafektiboek ematen dituzte adierazpen eta elkarrizketa aukerak. Haien bidez, pertsonak behar emozionalak parteka ditzake, eta, nabarmendu berri den bezala, harremanezko lotura eta elkarrekiko konfiantza sustatzen dira. Interakzio instrumentaletara bakarrik mugatzen bagara, zereginak edo eginkizunak izango dira gure jardunaren ardatza, eta ez horrenbeste pertsona bera. Egokiena bi interakzio motak konbinatzea da, eta hori posible izaten da normalean («Baso bat ur ekarri dizut. Hartu nahi duzu?»).

Nola hobetu demenzia duten pertsonen ongizatea gure eguneroko elkarrekintzen bidez izeneko gidan, interakzio mota horri buruzko informazio gehiago topatuko duzu, eta zenbait adibide irakurri ahal izango dituzu, eguneroko zaintzan elkarrekintza sozioafektiboak nola sustatu ikasteko.

4.2. Ingurune ulergarria eta jardun zentzuduna



Interakzio pertsonalak ingurune fisiko jakin batzuetan gertatzen dira, eta, horietan, hainbat jarduera egiten dira egunean zehar.



Bertan garatzen den espazio fisikoak eta jarduera motak eragina dute elkarrekintza pertsonalen maiztasunean eta sortzen den interakzio motan. Esate baterako, espazioak edo jarduerak izan dezakete helduentzako diseinua edo haurrentzako pentsatua (azken kasu horretan, eskola inguruneak gogoratuz). Halako kasuetan, maizago gertatzen da zaintzaileok haur gisa tratatzea gure ardurapean dauden helduak.



Espazio fisiko jakin batek erraztu edo zaildu egin dezake demenzia duen pertsonaren ongizatea. Baita harekin sortzen den interakzioa ere. Ingurune seguruek, ulergarriek eta esanguratsuek seguruago eta orientatuago sentiarazten dituzte pertsonak. Era berean, lagungarriak izaten dira aktiboago egon daitezen eta pertsonen arteko harreman handiagoa izan dezaten.



Jarduera esanguratsuak (hau da, pertsonak zentzumenez haute-
mandakoak edo haren ohitura eta gustuekin bat datozenak)
lagungarriak izaten dira haren nortasun pertsonalari eusteko.
Jarduera esanguratsuak lagundu egiten du gainerakoek dementzia
duten pertsonak ikus ditzaten, aintzakotzat hartzeko ikuspegiarekin,
eta garrantzia ematen dio haien bizi ohiturak eta balioak
errespetatzeari. Saihestekoak dira pertsonak aspertu edo umetu
ditzaketen dinamikak. Aldiz, erraztu egin behar da pertsonen
inplikazioa beren ingurunean, horrek ongizatea sortzen baitu.

FERMINEN LIBURUA



Duela gutxi Ferminen bizitza liburua egin dugu. Beti egoten da bistan, unitateko gelatxoan, mendiko argazki batzuekin batera. Fermin mendizale amorratua da, ezaguna herrian. Mendiak motibatu du bizitza osoan, eta mendiak eman dizkio bizitzako unerik zoriontsuenak. Liburua daukagunetik, edonork du aukera zoragarria babesa adierazteko eta Fermi hitz batzuk ateratzeko. Aurpegia alaitzen zaio, eta izugarri gozatzen du bere lagunak eta irudietan agertzen diren mendiak izendatzen.

Otezuriko profesionalen kontakua

4.2. Komunikazioa erraztea

Egunero-egunero dementzia duten pertsonak zaintzen eta laguntzen ditugunok zeregin oso garrantzitsua dugu komunikazioa errazteko eta bizipenak adierazten jarrai dezaten laguntzeko. Hori horrela, nortasun pertsonala mantentzen laguntzen diegu; hau da, dementzia duten pertsonak kontakizun pertsonalak egiten jarraitzeak nortasun narratiboa indartzen du, eta horrek eragina du ongizate emozionalean.

Bost gako nabarmendu behar dira, **dementzia duen pertsonekin komunikatzen laguntzen digutenak**. Horiek guztiak xehetasun handiagoz deskribatzen dira, adibide eta guzti, **Nola hobetu dementzia duten pertsonen ongizatea gure eguneroko elkarrekintzen bidez** izeneko gidan.

1.	Pertsonaren arretari eustea
	<ul style="list-style-type: none">● Haren arreta bereganatuz (begi kontaktua, jarrera, izenez deitzea...).● Distrakzioak murriztuz eta ingurumen interferentziak saihestuz.● Elkarrizketa lasaien bidez.
2.	Ulermena erraztea
	<ul style="list-style-type: none">● Gure hitzeko mezuak sinplifikatuz eta egokituz.● Aukera argiak eskainiz.● Pertsonak ulertzeko eta erantzuteko behar adina denbora utziz. .● Familia kontuak eta gai motibatzaileak bilatuz.
3.	Gure gorputz adierazpena egokitzea
	<ul style="list-style-type: none">● Afektua eta interesa agertuz.● Lasaitasuna transmitituz.
4.	Kontakizun edo narrazio pertsonalak estimulatzea eta laguntzea
	<ul style="list-style-type: none">● Hitz egiteko aukerak eskainiz.● Oroitzapenak ekartzeko aukerak eta jarduerak erraztuz.● Korrelazio teknikak erabiliz.
5.	Ahozko hizkuntza galduz gero, ordezkotako aukerak topatzea
	<ul style="list-style-type: none">● Musika esanguratsua modu pertsonalizatuan erabiliz.● Pertsonak oraindik ezagutzen dituen objektu esanguratsuekin lagunduz.● Beste teknika batzuk arakatuz: oinarritzko komunikazioa, estimulazio sensoriala, masajeak, aromak, landareak, animaliak, eta abar.

5. Zaintzaileak eta laguntzaileak balioestea eta babestea

Dokumentuan behin baino gehiagotan esan dugunez, lan zorrotza da dementzia duten pertsonen zaintza eta laguntza ematea, ezagutzak, trebetasunak eta konpromisoa eskatzen ditu, eta aitortu, balioetsi eta babestu egin behar dira. Zaintzaileei zaintzaren eraginaz jabetzea ahalbidetuko dien ekintzak, prestakuntza eta norberaren burua zaintzeko guneak eta momentuak izatea ezinbestekoak dira zaintza-harremanean; izan ere, nekez zaindu ahal izango da ondo, norbera ondo ez badago.




Funtsezko elementuak

- 5.1. Zaintzailea balioestea
- 5.2. Familiei laguntza eskaintzea narriadura ulertzen eta eguneroko harremanetan
- 5.3. Profesionalei eguneroko zaintzan laguntzea


5.1. Zaintzailea balioestea




Zaintzailea ere zaindu behar da. Ondo zaindu ahal izateko, ezinbestekoa da ondo sentitzea. Zaintzaileak ikusi behar du ez dagoela bakarrik, eta baduela besteren babes, erakundearena.



Funtsezkoa da profesionalak eta familieek dementzia duten pertsonen zaintzan duten eginkizuna aitortzea. **Balioetsi egin behar ditugu, pertsonaren ezagutzan aditu gisa eta haren ongizatearen giltzarri gisa.**



Batzuetan, oso oharkabean pasatzen da haien lana, eta, horren ondorioz, baliteke ez sentitzea haien lanaren zentzua, edo ez sentitzea inplikaturatuta. Eta, konpromisorik izan ezean, nekez lortuko da ondo zaintzea.



Errekonozimenduak hainbat lekutatik etorri behar du, baina erakundeak berak izan behar du zaintzaile eta laguntzaileei (profesional zein senitarteko) balioa emango dien iturri nagusia, haien lorpenak eta lan ona nabarmenduz, eta sortzen diren zailtasunen aurrean laguntza eskainiz.

5.2. Familiei laguntzea narriadura onartzen eta eguneroko harremanetan



Lehenik eta behin, jakin behar dugu **denbora eskatzen duela narriadura onartzeak eta maite dugun pertsona batengan gertatzen diren aldaketak ulertzeak.** Dementzia batek dakarren narriadurak rola aldatzea eragiten du, baita komunikatzeko modua egokitzea ere. Denbora behar da pertsonaren narriadurak harremanetan eragiten duen mina onartzeko eta hari zentzua emango dioten harreman modu berriak aurkitzeko.



Egoera batzuetan, familiek **informazioa eta laguntza profesionala** beharko dute, aldaketak ulertzeko eta egoera berrira errazago egokitzeko estrategiak garatzeko, bai eta demenzia duen pertsonarekin harremanak izateko modu positibo bat aurkitzeko ere. Zentroko profesionalak, **talde teknikoak eta erreferentziako profesionalak** oso zeregin garrantzitsua izaten dute demenzia duen pertsona baten familiakideei aholkularitza emateko.

JUANEN ALABARI LAGUNTZEN




Juanek emaztearekin nahasten zuen alaba. Eta alabak oso gaizki zeraman hori. Izugarri sufritzen zuen aita hain nahasita eta aldatuta ikusita. Halaber, errudun sentitzen zen «zentroan bakarrik uzteagatik». Gaur egun, familiei laguntzeko taldean parte hartzen du. Familietan, ohikoak dira erru sentimendua eta maite dituzten pertsonak gaitzestea. Gure eginkizunaren parte da halako uneetan onartuak, entzunak eta lagunduak sentiaraztea, eta horrela lortzen da harreman ona izateko oinarriak ipintzea.

Otezuriko lantaldeko profesional batek kontatua




Dementia duen pertsonaren eta haren senideen arteko harreman positiboa errazteko beste alderdi garrantzitsu bat da **elkarrekintza positiboko jarduerak eta uneak** aurkitzen laguntzea, jarduera horietan elkarrekin gozatu eta une onak igaro ditzaten.



Pertsonaren eta egungo harremanaren alderdi positiboak identifikatzen lagundu behar diegu familiei, eta aldendu egin behar dugu gabezia edo zailtasun bat besterik ez den horretan soilik mugatzen den begirada hutsetik. Aukera ona da jarduera atseginak eta gustura egoteko lekuak bilatzea, eta, ahal bada, ondo pasatzea.



Zentroko profesionalak (erreferentziako profesionalak edo talde teknikoko kideren batek) **eginkizun handia dute ideiak, estrategiak eta baliabideak proposatzeko**, komunikazio positiboa izaten jarraitzeko, begirada gaitasunetan zentratzeko eta zenbait jarduera partekatuz tarte onak nola igaro ahal dituzten pentsatzeko. Benetan garrantzitsua da guztiontzat atseginak, errazak eta dibertigarriak diren jarduerak bilatzea, eta oso lagungarria da familientzat.




Izan liteke argazkiak ikustea, musika esanguratsua entzutea, eskulanak egitea, joko errazetan aritzea, paseoak ematea, eta abar. Zaintza lan jakin batzuk ere har ditzakete beren gain, baldin eta bien ongizatea eragiten badute. Hori horrela, **lagundu egiten da senideak senti dezan bere babesak eta lanak baduela zentzurik, merezi duela bisitan joatea**. Eta, hartara, jarrai dezakeela maite duen pertsonaren eguneroko bizitza hobetzen.


5.3. Profesionalei eguneroko zaintzan laguntzea




Dementia duten pertsonak zaintzea da profesionalak iraupen luzeko zaintzarako aipatu ohi duten zailtasun handienetako bat. Horretarako, **jakintza, trebetasunak eta jarrera jakin batzuk garatu behar dira**. Baina beharrezkoa da, orobat, egunerokoan gainbegiratzea eta laguntza jasotzea ere, nolabaiteko zailtasun egoerak gertatzen direnean, batik bat.



Lagungarria izango da aurrerabide honetan deskribatutako gai guztiak ezagutzea eta jardunbide egokirako gakoak eta estrategiak aplikatzen jakitea. **Talde lana ezinbestekoa da**, eta erreferentziako profesionalak gainerako profesionalen laguntza izan behar du **konplexutasun handieneko egoerei aurre egiteko**. Elkarrekin lan egitea: pertsona eta haren familia ez ezik, diziplinarteko taldea ere beharrezkoa izango da beharrak eta aukerak identifikatzeko, eta, hala, pertsoneri ongizate aukerak sortzeko. Ildo horretan, ezinbestekoak dira partaidetza bidezko hausnarketa eta ikuspegiak bateratzea.



Arreta zuzeneko profesionalak, batzuetan, **erreleboa edo atsedena beharko dute egoera jakin batzuen aurrean**. Jokabide alterazioak dituzten pertsonak zaintzeak emozioei eustea eskatzen du, eta, horretarako, beharrezkoak dira distantzia eta deskonexio uneak. Hori garrantzitsua da lan honekin aurrera jarraitu ahal izateko. Zentroaren eta zerbitzuaren antolamenduak aurreikusita eduki behar du premia hori, eta malgutasunez jokatu behar du halako egoeren aurrean.



Era berean, oso beharrezkoak dira **gainbegiratze eta babes emozionaleko espazioak**, pertsonengan ardaztutako zaintza ereduarekin ahalegintzen eta konprometitzen diren profesionalen laguntzeko.

3.

PRAKTIKARAKO BALIABIDEAK

Atal honetan, aurrerabidean laguntzeko baliabideak identifikatzen dira.

Batzuk tresna metodologikoak dira (esku-hartze zehatzetan laguntzeko gidak, informazioa erregistratzeko ereduak, euskarri metodologikoak eta abar); beste batzuk, berriz, gogoeta sortzeko, jarrerak aldatzeko edo ezagutza handiagoa sortzeko baliabideak dira (ikus-entzunezkoak, tresnak eta erremintak, esperientzia praktikak, sentsibilizazio eta gogoeta ariketak, prestakuntza ekintzak eta abar).

PARTAIDETZA BIDEZ BERRIKUSTEKO FITXA

Deskribapena:



Fitxa sorta honek talde hausnarketako prozesu baten auto-ebaluazioa egiteko aukera ematen du, jardunbide egokien zenbait deskribatzaile harturik.

Erabilgarritasuna:

Oso baliagarriak dira demenzia duten pertsonen artean komunikazioa eta ongizatea sustatzeko funtsezko osagaiei buruz kontzientzia hartzeko, bai eta indarguneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko ere.

Baliatzen diren heinean, jardunbide egokien funtsezko elementuei buruzko prestakuntza eta ekipoetan esanahiak partekatzea sustatzen dute.


Erabili ahala, aurrera egin nahi badugu landu beharreko eremuak identifikatzen dira. Alde horretatik, plangintzarako balio dute.

Hemen eskuragarri:

<https://bit.ly/3Wldj4R>

«NOLA HOBETU DEMENTZIA DUTEN PERTSONEN ONGIZATEA GURE EGUNEROKO ELKARREKINTZEN BIDEZ» GIDA

Deskribapena:



Gida horretan, demenzia duten pertsonen ongizatea komunikazio trebetasunen bidez errazteko gomendioak eskaintzen dira.

Erabilgarritasuna:

Zentroetako taldeei orientazioa eskaintzea, demenzia duten pertsonetikiko ongizatea eta komunikazioa hobetzeko moduari buruz.

Hemen eskuragarri:

<https://bit.ly/3WldYwN>

ASE GABEKO BEHARREN EREDUA - INFOGRAFIA

Deskribapena:



Infografia honetan, ase gabeko beharren ereduaren gakoak ageri dira laburtuta. Eredu horri esker, pertsonarengan jar dezakegu arreta, eta ez alterazioan.

Erabilgarritasuna:

Demenzia duten pertsonen portaerak ulertzen laguntzeko lan esparrua proposatzen du. Ulermen horretan oinarrituta eta pertsona bere jokabidearen bidez adierazten ari den beharra aintzat hartuta egiten da esku-hartzea.

Hemen eskuragarri:

<https://bit.ly/3GWZM8G>

LIBE – ONGIZATEAREN ADIERAZLEEN ZERRENDA

Deskribapena:

Dementia dutenen ongizatearen adierazle diren zenbait jokabide ebaluatzeko behaketa bidezko eskala.

Erabilgarritasuna:

Denbora gutxian zenbait adierazle esanguratsu ebaluatzeko, banaka zein taldeka:

- a** jarduera batekiko inplikazioa
- b** beste pertsona batzuekiko interakzioa
- c** zenbait aukeraren artean hautatu ahal izatea
- d** ongizatearen adierazpen ahozko eta ez-ahozkoak

Ebaluazio indibidualak egiteko balio du, batez ere bizikidetzaren unitateetako ongizate «egoerak» ikusteko; bestalde, aukera ematen du gune horretako interakzioen «argazkia egiteko» eta, ondoren, hobetzeko ekintza jakin batzuei ekiteko. Ikerkuntzan ere emaitza onak ari da izaten, zenbait esku-hartzeren ondorioak erakusten ditu eta.

Hemen eskuragarri:

<https://bit.ly/3IREz5U>

BIDEOA: NAOMI FEIL ETA GLADYS WILSON

Deskribapena:



Bideo horretan, Naomi Feilek (baliozkotze emozionaleko tekniken sortzailea) dementia oso aurreratua duen Gladys Wilson andreakin dihardu interakzioan. Hala, ikusten da nola lor daitekeen komunikazioa teknika horiek erabiliz.

Erabilgarritasuna:

Narriadura kognitiboa duten pertsonen eta komunikazio trebetasunen garrantziari buruz hausnartzea.

Hemen eskuragarri:

<https://youtu.be/3kfoS5qKwwg>

MESSAGE BIDEO ESTRATEGIAK

Deskribapena:



Queenslandeko Unibertsitateak egindako bideo bat da, eta modu errazean eta adibideekin azaltzen dira MESSAGE estrategiak, profesionalak dementzia duten pertsonak zaintzeko komunikazioa errazteko.

Erabilgarritasuna:

Zetro eta zerbitzuetako profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea, dementzia duten pertsonekin hobeto komunikatzeko estrategiei buruz.

Hemen eskuragarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=hV6IRnrZ6L0>

«LO MEJOR PARA ELLA» BIDEOA

Deskribapena:



Dementzia duen adineko batekiko tratu desegokiaren egoera bat erakusten du. Adinekoen eta lantaldeen artean zaintza lanetan gerta daitezkeen tratu desegokiei buruzko sentsibilizazioa eta gogoeta sustatzeko egin da.

Erabilgarritasuna:

Gogoeta egiteko, gure begiradak, jokabideek eta hizkerak duen garrantziaz, zaintzen ditugunei ongizatea eta/edo ondoeza eta kaltea sortzeko orduan.


Hemen eskuragarri:

<https://youtu.be/ytbMEy9cNbU>

4.

ARTIKULU ETA DOKUMENTU INTERESGARRIAK

Atal honetan, orain arte aurkitu ditugun artikulua eta agiri interesgarrien zerrenda egin dugu, betiere jakinik etengabe eguneratu behar dela.

Dibulgazioko estiloan idatziak dira  sinboloa duten agiriak, errazago irakur daitezzen; horregatik, bereziki baliagarriak izan daitezke egoitza eta zerbitzuetako lantaldeen kontsultetarako. Horrek ez du esan nahi, jakina, gainerako agiriak beharrezkoak ez direnik edo balio txikiagoa dutenik, edozein dela ere sakondu beharreko gaia.

A. DEMENTZIA DUTEN PERTSONENTZAKO ZAINKETAK, DOKUMENTU OROKORRAK

- Guisset, M.J. (2008). *Cuidados y apoyo a personas con demencia: nuevo escenario*. Boletín sobre envejecimiento Perfiles y tendencias. Madril: IMSERSO.
- Kitwood, T. (1997) *Dementia Reconsidered. The Person comes first*. Oxford: Open University Press (1997)
- Martínez, T. (2015). *Personas...con Alzheimer. La ACP, un camino por recorrer* blogean argitaratutako artikulua. Hemen eskuragarri: <http://acpgerontologia.blogspot.com/2015/09/personascon-alzheimer.html>
- Martínez, T. (2016). *Cuando el Alzheimer avanza ¿dónde queda la persona? La ACP, un camino por recorrer* blogean argitaratutako artikulua. Hemen eskuragarri: <http://acpgerontologia.blogspot.com/2016/01/cuando-el-alzheimer-avanzadonde-queda.html>

Ase gabeko beharren eredua

- Cohen-Mansfield, J., Dakhell-Ali, M., Marx, M.S., Thein, K., & Regier, N.G. (2015). Which unmet needs contribute to behaviour problems in persons with advanced dementia? *Psychiatry Research*, 228, 59-64.

Kontakizun narratiboa eta oroitzapena

- Martínez, T. (2012). *Entrenar la memoria e intervenir en reminiscencias*. Madril: Médica- Panamericana.
- Serrano, J.P., Latorre, J.M., Ricarte, J.J., Ros, L., Navarro, B. Aguilar, M.J., eta Nieto, M. Reminiscencia y revisión de vida. (2010). *Un modelo conceptual para la investigación y la práctica*. Hemen eskuragarri: <http://envejecimiento.csic.es/documentos/documentos/serrano-reminiscencia-01.pdf>
- Villar, F. (2006). *Historias de vida y envejecimiento*. Informes Portal Mayores, 59. zk.
- Villar, F., eta Serrat, R. (2017). Hable con ellos. Cuidados narrativos en el marco de una atención centrada en la persona. *Revista Española de Geriátría y Gerontología*, 52, ,216-222.
- Villar, F., Serrat, R. & Bravo-Segal S. (2019) «Giving Them a Voice: Challenges to Narrative Agency in People with Dementia». *Geriatrics*, 4(1), 20. <https://doi.org/10.3390/geriatrics4010020>.
- Villar, F., Serrat, R. (2017). Changing the culture of long-term care through narrative care: Individual, interpersonal, and institutional dimensions. *Journal of Aging Studies*, 40, 44-48.

Baliozkotzea

- Feil, N. (2003) *Validación. Un método para ayudar a las personas mayores desorientadas*. Bartzelona: Herder.

Irudi pertsonala eta nortasuna

- Navarro, A., Díaz-Veiga, P., eta López A. (2009). *Así soy, así me gusto*. Madril: IMSERSO.
- Twigg, J, & Buse, C. (2013). «Dress, dementia and the embodiment of identity». *Dementia*, 12(3),326-336.
- Twigg, J. (2009). «Clothing, Identity and the Embodiment of Age». In J. Powell and T. Gilbert (eds) *Aging and Identity: A Postmodern Dialogue*, New York: Nova Science Publishers.

Familiekin esku hartzea

- Losada, A., Márquez, M., Vara-García, C., Gallego, L., Romero, R. eta Olazarán, J. (2017) «Impacto psicológico de las demencias en las familias: un modelo integrador». *Revista Clínica Contemporánea*, 8, e4, 1-27. Doi: <http://dx.org/10.5093/cc2017a4>.
- Rodríguez, P., Díaz-Veiga, P., Martínez, T., eta García A. (2015). *Cuidar, cuidarse y sentirse bien: Guía para personas cuidadoras según el modelo de atención integral centrada en la persona*. Madril: Autonomia Pertsonalerako Pilares Fundazioa.

matia
gogoz bizi